

EHUn euskaraz ikasi nahi eta gaztelaniaz egitera behartuta

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Filosofiako laugarren mailan, EHUn, nahitaez ikasgairan bat gaztelaniaz hautatu behar dute ikasleek, ez baitago nahikoa ikasgai euskaraz. Gaztelaniazko ikasleek ez dute arazo hori, eta bitxia da, euskarazko ikasle gehiago dagoelako gaztelaniazkoak baino. Beste karrera batzuetan ere salatu dituzte antzeko kasuak. “Ez digute uzten jakintza gure hizkuntzan garatzen”.

Ikasgai guztiak hautazkoak dira Filosofia karrerako laugarren mailan, baina ez dago nahikoa hautazko euskaraz, kreditu guztiak osatzeko. Bai ala bai ikasgairan bat gaztelaniaz egitera derrigortuta daude euskaraz ikasi nahi dutenak, eta esan-guratsua da, gaztelaniazko ikasgai horietako batzuetan izena eman duten erdia baino gehiago ikasle euskaldunak baitira.

Azalpenak eskatu ditu Aimar Jusue Filosofia ikasleak, eta irakasleak erantzun dio ez dagoela nahikoa ikasle euskarazko ikasgai berri bat sortzeko, baina horren atzean dagoen tranpa agerian utzi du Jusue: soilik euskarazko ikasgaiak eskainiko balituzte, nahikoa ikasle egongo litzateke, baina gaztelaniazkoak eskaintzen dituzte, badakitelako euskarazko ikasleek gaztelaniazko ikasgaietan ere emango dutela izena. Kontrakoa ez da egiten, gaztelaniazko nahikoa ikasgai ez eskaini eta gaztelaniazko ikasleek euskarazko ikasgaiekin osatu behar izatea ikasturtea, alegia ez dituzte gaztelaniazko ikasleak derrigortzen euskarazko hautagai bat hartzera.

Magisteritzan, Zuzenbidean, Gizarte Hezkuntzan... ere gertatzen dela dio Jusuek, ikasle euskaldunek momenturen batean edo bestean gaztelaniaz ikasi behar izatea. Ezagutu duen praktika bat nabarmendu digu: euskaraz eta gaztelaniaz, bi hizkuntzatan ematen den ikasgai batean, euskaraz izena eman duten ikasleak behartzea gaztelaniazkoan matrikulatzera, nahikoa ikasle egon dadin gaztelaniazko klasea atera ahal izateko. “Helburuak ez al luke izan behar euskaraz ahalik eta ikasgai eta ikasle kopuru handiena aritzea, euskarazko klasea murriztu beharrean gaztelaniaren mesedetan?”, kexu da Aimar Jusue.

“Euskaraz eta euskaratik egindako eduki eta arloak indartzea eta elikatzen jarraitzea ezinbestekoa da, kultura eta jakintza gure hizkuntzan zabaltzen segi nahi badugu”, nabarmendu du, “baina halako jarrera eta erabakiekin kontrakoa egiten dute: gure hizkuntza txikitzen goaz, euskaraz eduki gehiago sortzeko aukera murrizten. Saiatzen dira irudikatzen euskararen arazoa euskaraz ikasi nahi dugunona baino ez dela, baina EHuko kasu hauen guztien atzean injustizia epistemiko bat dago, gure hizkuntzan jakintza garatzen uzten ez diguna”.

IEPE euskara taldeko militantea da Jusue (Ibaetako Euskaltzaleen Plaza Euskarari), eta hezkuntza arloan dauden euskara taldeetakoren batean parte hartzera animatu ditu ikasleak. ●



TEKNOLOGIA

Zoritzarrak



DIANA FRANCO EGUREN

Domeka euritsu honetan, arduraz bizi dugu munduan dauden gatazka askotarikoak direla ezinegonean bizi diren pertsonen zoria. Urrunetik, badirudi boterera jokatzeko duen hainbat agintariren eskuetatik ezin garela askatu. Beti bere burua babestu behar duen sumoarekin bizi da gizaki asko munduan. Beharbada, hori da zenbait botere ereduren azken helburua, klase xumeetan ezinegona landatzea.

Azpaldi, egun hauetan Libanon gertatzen ari dena hobeto ulertzen lagundu didan hitzaldi batean izan nintzen. Gisa Elkarteko Mainer Likonak gazteei zuzendutako hitzaldia zen. Antenekin zein Internet bidezko datuekin, gailuen bidez, batez ere mugikor adimentsuen bidez, pertsonen kokalekua ezagutzeko erabiltzen den teknologia azaldu eta erakutsi zigun. Zientzia fikzioa iruditzen zitzaieen gazteei, baina txundituta geratu ziren Mainerrek euren gailuak kokatzen zituztean, euren informaziorik izan gabe. Hitzaldi horretan ulertu nuen mugikorrek bi bideko komunikazioa egiten dutela inguruan dauden antenekin, antena eta mugikorra elkarriketa batean baleude bezala, eta horrek dakarrela modu zehatzean gailuak tringulatzeak aukera.

Agian horregatik, Mossad Israelen kanpo inteligentzia-agentziak teknologien inguruan duen ezagutza handia ikusita, Libanoko Hezbollah-ko agintariek erabaki zuten euren artean modu seguruagoan komunikatzeko alternatiba bat bilatzea. Hala, beeperrak eta antzeko teknologia duten gailuak erabiltzen hasi ziren, gailu horiek bide bateko seinalea egiten baitute, eta baliteke ere sare propio bat sortu izana, triangulazioa zailduz. Baina gaiztoa izateko ere irudimena behar da, eta komunikabide ugaritan ikusi, entzun eta irakurri dudanez, gailuak aurretik manipulatuak izan ziren leherkariak baterietan txertatuz, eta horiek eztanda egiteko agindua zelan eman den oraindik ez da argitu. Gailuen bateriak lehergai bilakatu badaitezke, zelan eragingo dio horrek gure bizitzetan darabiltzagun gailuei? Ziur nago aldaketak etorriko direla. ●